

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2008/50/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko maiatzaren 21ekoa, giroko airearen kalitateari eta Europan aire garbiagoa izateari buruzkoa.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/50/EE DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 21 de mayo de 2008, relativa a la calidad del aire ambiente y a una atmósfera más limpia en Europa» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 152/1, 2008/6/11koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## I

*(Derrigorrez argitaratu beharreko EE/Euratom Tratatuak aplikatuta onartutako egintzak)*

### ZUZENTARAUAK

#### **2008/50/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

##### **2008ko maiatzaren 21ekoa**

##### **giroko airearen kalitateari eta Europan aire garbiagoa izateari buruzkoa**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 175. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena <sup>(2)</sup> aztertu dute,

Eskualdeetako Komitearen irizpena <sup>(3)</sup> aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura <sup>(4)</sup> bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Ingurumenari buruzko Erkidegoko VI. ekintza-programan —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1600/2002/EE Erabakiaren (uztailaren 22koa) bidez onartua <sup>(5)</sup>— kutsadura murriztu behar dela esaten da, gizakiontzako kalteak albat gehien gutxitzeko, talde kalteberenei, bereziki, eta ingurumenari, oro har, arreta berezia eskainiz. Horrekin batera, giroko airearen kalitatearen kontrola eta ebaluazioa (kutsatzaileen gordailuak barne) hobetu behar direla eta herritarrei informazioa eman behar zaiela esaten da ekintza-programa horretan.

(2) Gizakion osasuna eta, oro har, ingurumena babestearren, kutsatzaileen isurpena jatorrian bertan gutxitu behar da eta isurpenak murrizteko neurri eraginkorrak aplikatu behar dira herri-, estatu- eta Erkidego-mailan. Hala, eguratsera kutsatzaile kaltegarriak isurtzea galarazi, prebenitu edo murriztu behar da, eta giroko aireak bete beharreko helburuak finkatu behar dira, Osasunaren Mundu Erakundearen arau, jarraibide eta programak kontuan hartuta.

(3) Kontseiluaren 96/62/EE Zuzentaraua —1996ko irailaren 27koa, giroko airearen kalitatea ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoa <sup>(6)</sup>—, Kontseiluaren 1999/30/EE Zuzentaraua —1999ko apirilaren 22koa, giroko airean dauden sufre dioxidoaren, nitrogeno dioxidoaren eta nitrogeno oxidoen, partikulen eta berunaren muga-balioei buruzkoa <sup>(7)</sup>—, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/69/EE Zuzentaraua —2000ko azaroaren 16koa,

(1) C 195 EO, 2006/08/18koa, 84. or.

(2) L 206 EO, 2006/08/29koa, 1. or.

(3) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006ko irailaren 26koa (C 306 E EO, 2006/12/15koa, 102. or.), Kontseiluaren Jarrera Komuna, 2007ko ekainaren 25koa (C 236 E EO, 2007/11/06koa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2007ko abenduaren 11koa. Kontseiluaren Erabakia, 2008ko apirilaren 14koa.

(4) L 242 EO, 2002/09/10ekoa, 1. or.

(5) L 296 EO, 1996/11/21ekoa, 55. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 (EE) Erregelamendua (L 284 EO, 2003/10/31koa, 1. or) aldatutako Erregelamendua.

(6) L 163 EO, 1999/06/29koa, 41. or. Batzordearen 2001/744/EE Erabakiak (L 278 EO, 2001/10/23koa, 35. or.) aldatutako Zuzentaraua.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

giroko airean dagoen bentzenoaren eta karbono monoxidoaren muga-balioei buruzkoa <sup>(1)</sup>—, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/3/EE Zuzentaraua —2002ko otsailaren 12koa, giroko airean dagoen ozonoari buruzkoa <sup>(2)</sup>— eta Kontseiluaren 97/101/EE Erabakia —1997ko urtarrilaren 27koa, estatu kideetako eguratseko kutsadura neurtzeko sare eta estazio isolatuen artean informazioa eta datuak trukatzeko modua finkatzen duena <sup>(3)</sup>— goitik behera berrikusi behar dira, osasun-arloan eta zientzian izandako azken aurrerapenak eta estatu kideen esperientzia ere kontuan hartzearen. Arauak argitu, sinplifikatu eta administratiboki eraginkorragoak izateko, bost lege-testu horiek zuzentarau bakar batekin ordezkatzeari komeni da eta, hala badagokio, dagozkion betearazte-neurriak hartu beharko dira.

(4) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/107/EE Zuzentaraua —2004ko abenduaren 15koa, giroko airean dauden artseniko, kadmio, merkurio, nikel eta hidrokarbuero aromatiko polizikloei buruzkoa <sup>(4)</sup>— Zuzentarau honekin bateratu ahal izango da, aplikatzeari dagokionez behar besteko esperientzia bildutakoan.

(5) Giroko airea ebaluazio-irizpide komunetan oinarritutako ikuspegi batetik ebaluatu behar da, eta ebaluazioa egitean eguratseko kutsaduraren eraginpean dauden populazio eta ekosistemen tamaina hartu behar da kontuan. Estatu kideetako, beraz, biztanle-dentsitatea islatzen duten zona edo aglomerazioen arabera sailkatu behar da.

(6) Ahal dela, modelizazio-teknikak aplikatu behar dira unean uneko datuak kontzentrazioaren banaketa geografikoaren arabera interpretatzeko. Datu hori zona bateko biztanle guztien esposizio-maila kalkulatzeko erabil liteke gero.

(7) Eguratseko kutsadurari buruz bildutako informazioa behar bezain adierazgarria dela eta Erkidego osora hedatu daitekeela ziurtatzearen, giroko airearen kalitatea ebaluatzeko garaietan neurketa-teknika normalizatuak eta neurketa-estazioen kopuru eta kokapenari buruzko irizpide komunak erabili beharko dira. Era berean, giroko airearen kalitatea ebaluatzeko, neurketek bestelako teknikak erabil daitezke. Hori dela eta, teknika horiek erabiltzeko irizpideak finkatu eta teknika horiei eskatuko zaien doitasun-maila zehaztu beharko da.

(8) Landa-ingurunean sakoneko kokapenetan dauden partikula finen neurketa zehatzak egin behar dira, kutsatzaile horren ondorioak hobeto ulertu eta politika egokiak garatzeko. Neurketa horiek bat etorri behar dute Europako eguratseko kutsatzaileen distantzia handiko garraioaren etengabeko zaintza eta ebaluaziorako lankidetzaprograman (EMEP) finkatutako neurketekin. Eguratsaren mugaz gairako distantzia handiko kutsadurari buruzko 1979ko Itunarekin —Kontseiluaren 81/462/EE Erabakiak onartua, 1981eko ekainaren 11n <sup>(5)</sup>— bat etorritik onartu zen programa hura.

(9) Giroko airearen kalitatea ona bada, kalitate on horri eutsi behar zaio eta, bestela, hobetu egin behar da. Zuzentarau honetan giroko aireerako finkatzen diren helburuak betetzen ez badira, estatu kideek muga-balio horiek eta balio kritikoak errespetatzeko neurriak hartu beharko dituzte eta, ahal dela, xede-balioak eta epe luzerako helburuak lortzeko neurriak ere bai.

(10) Eguratseko kutsadurak landarediari eta natur ekosistemei dakartzkien arriskuak oso handiak dira hiri-inguruneetatik urrun dauden lekuetan. Hori dela eta, zona eraikitatik urruti dauden lekuetan ebaluatu beharko dira arriskuak eta landaredia babesteko maila kritikoaren betetze-maila.

---

(1) L 313 EO, 2000/12/13koa, 12. or.

(2) L 67 EO, 2002/03/09koa, 14. or.

(3) L 35 EO, 1997/02/05koa, 14. or. Batzordearen 2001/752/EE Erabakiak (L 282 EO, 2001/10/26koa, 69. or.) aldatutako Erabakia.

(4) L 23 EO, 2005/01/26koa, 3. or.

(5) L 171 EO, 1981/06/27koa, 11. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(11) Partikula finek (PM<sub>2,5</sub>) giza osasunerako ondorio kaltegarri ugari eragiten dute. Gainera, PM<sub>2,5</sub> partikulak zein atalasetatik behera ez diren kaltegarriak argitu gabe dago oraindik. Hala, kutsatzaile hau ez da eguratsaren gainerako kutsatzaileen modu berean arautu behar. Hiriguneetako kontzentrazioak orokorrean murriztu egin behar dira, biztanle-sektore askok airearen kalitate hobea dutela bermatzearen. Dena den, osasuna zona guztietan gutxieneko maila batean behintzat babesteko, ikuspegi horrekin bat muga-balio bat finkatu beharko da, eta, lehen etapa batean, muga-balio horren aurretik xede-balio bat bete beharko da.

(12) Ozonoaren eraginpean egoteak giza osasunari, landarediari eta ekosistemei dakarzkien kalteei aurre egiteko babes eraginkorra bermatzeko lehendik finkatuta dauden xede-balioak eta epe luzerako helburuak aldatu gabe utzi behar dira. Ozonorako alerta-atalasea eta informazio-atalasea finkatu behar dira, biztanleria orokorra, batetik, eta, bestetik, ozonoaren kontzentrazio handien eraginpean denbora gutxian egoteak arrisku gehien dakarzkien sektoreak babesteko, hurrenez hurren. Atalase horiek oinarritzat hartuta, ozonoaren eraginpean egoteak eragindako arriskuen berri eman behar zaie herritarrei eta, alerta-atalasea gaindituz gero, ozono-mailak murrizteko epe laburrerako neurriak hartu beharko dira, behar izanez gero.

(13) Ozonoa mugaz gaindiko kutsatzailea da eta lehen mailako kutsatzaileak eguratsera igortzean sortzen da. Kutsatzaile horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/81/EE Zuzentarauak —2001eko urriaren 23koa, eguratseko zenbait kutsatzailearen isurpenei buruzko estatu-mailako gehienezko mugei buruzkoa<sup>(1)</sup>— arautu zituen. Zuzentaru honetan airearen kalitaterako finkatzen diren helburuak eta ozonoari buruzko epe luzerako helburuak pixkanaka lortzen joateko, 2001/81/EE Zuzentaruaren finkatutako gehienezko isurpenak eta oraingo helburuak nahiz helburu berrikusiak hartu behar dira erreferentzia gisa eta, hala badagokio, Zuzentaru honetan finkatutako airearen kalitaterako planak aplikatu beharko dira, halaber.

(14) Neurketa finkoak nahi eta nahi ez egin beharko dira, ozonorako epe luzerako helburuak eta bestelako kutsatzaileentzako ebaluazio-atalaseak gainditzen dituzten zona eta aglomerazioetan. Neurketa finkoetatik ateratako informazioa osatzeko, kontzentrazioen banaketa geografikoaren arabera tokian tokiko datuak interpretatzen laguntzen duten modelizazio-teknikak nahiz neurketa adierazgarriak egin ahal izango dira. Era berean, ebaluazio-teknika osagarriak erabiltzeko baimena eman beharko da, laginketa finkoak egiteko gutxieneko guneen kopurua murriztearen.

(15) Jatorri naturaleko isurpenak ebaluatu egin daitezke, baina ez kontrolatu. Hortaz, jatorri naturaleko giroko aireko kutsatzaileak behar besteko doitasunez zehaztu daitezkeenean eta muga-gainditzea jatorri naturaleko isurketa horien ondorioz gertatzen denean osorik nahiz zati batean, airearen kalitateari dagozkion muga-balioak betetzen diren ebaluatzeo garaian, jatorri naturaleko isurketen kenketa egin ahal izango da, Zuzentaru honetan finkatutako baldintzetan betiere. PM<sub>10</sub> partikulen muga-balioak neguan errepidean botatako hondarraren edo gatzaren ondorioz gainditzen badira, isurpen horien kenketa egin ahal izango da airearen kalitateari dagozkion muga-balioak betetzen diren ebaluatzeo garaian, kontzentrazio horiek murrizteko neurri egokiak hartzen badira.

(16) Baldintza bereziki zailak dituzten zona eta aglomerazioetan, airearen kalitateari dagozkion muga-balioak betetzeko epeak luzatu ahal izango dira baldin eta, kutsadura murrizteko neurri egokiak hartu arren, zona eta aglomerazio zehatz horietan balio haiek betetzeko arazo larriekin jarraitzen badute. Zona nahiz aglomerazio zehatz bati luzapenik emanez gero, plan zehatza aurkeztu beharko da finkatutako balioak ezarritako epe berrian betetzeko. Batzordeak ebaluatuko du plan hori. Isurpenak jatorrian bertan murrizteko eguratseko kutsadurari buruzko gaikako estrategian aukeratutako zorrotasun-maila jasotzen duten Erkidegoko neurriak egotea garrantzitsua izango da isurpenak Zuzentaru honetan finkatutako epean murrizteko eta muga-balioak errespetatzeko, eta aintzakotzat hartu beharko dira betetzeko epeak luzatzeko eskaerak ebaluatzeo garaian.

---

(1) C 309 EO, 2001/11/27koa, 22. or. Azkenik Kontseiluaren 2006/105/EE Zuzentarauak (L 363 EO, 2006/12/20koa, 368. or.) aldatutako Zuzentaruak.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(17) Isurpenak jatorrian bertan murrizteko Erkidegoko neurriak —bereziki, industriako isurpenei buruzko Erkidegoko legeen eraginkortasuna hobetzeko neurriak, ibilgailu astunetan jarritako motorren hodietako isurpenak mugatzeko neurriak, estatu kideen funtsezko kutsatzaile batzuen isurpenak eta ibilgailuek gasolindegietan erregaia hartzean sortutako isurpenak (estatu-mailan baimendutakoak) areago murrizteko neurriak eta erregaiek (itsasoan erabiltzekoak barne) duten sufre-edukiari dagozkion neurriak— behar bezala eta lehentasunez aztertu behar dituzte gaiarekin zerikusia duten erakunde guztiek.

(18) Airearen kalitaterako planak prestatu behar dira giroko airean dagoen kutsatzaile-kontzentrazioak xede-balioak edo airearen kalitateari dagozkion muga-balioak (aldi baterako tolerantzia-marjinak gehituta, hala dagokionean) gaintzen dituen kasuetan. Eguratseko kutsatzaileak jatorri eta jardura askotatik datoz. Politika desberdinak bat datozela ziurtatzearen, plan horiek, bideragarriak direnean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/80/EE Zuzentarauari —2001eko urriaren 23koa, errektuntza-instalazio handietatik datozen agente kutsatzaile jakin batzuen eguratserako isurpenak mugatzeari buruzkoa <sup>(1)</sup>—, 2001/81/EE Zuzentarauari eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/49/EE Zuzentarauari —2002ko ekainaren 25ekoa, giroko airea ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoa <sup>(2)</sup>— jarraiki prestatutako plan eta programekin bat etorri eta haietan txertatu beharko dira. Era berean, Zuzentaru honetan aipatzen diren giroko airearen kalitaterako helburuak osorik hartu behar dira aintzakotzat, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/1/EE Zuzentarauari —2008ko urtarrilaren 15ekoa, kutsadura modu bateratuan prebenitu eta kontrolatzeari buruzkoa <sup>(3)</sup>— jarraiki industria-jardueretarako baimenak ematen direnean.

(19) Alerta-atalase bat edo gehiago gaintzeko arriskua dagoenean, epe laburrean hartu beharreko neurriak jasotzen dituzten ekintza-planak prestatu beharko dira, arrisku hori murriztu eta haren iraupena mugatzearen. Arriskua muga-balio edo xede-balio bati edo gehiagori dagokienean, estatu kideek epe laburreko ekintza-planak prestatu ahal izango dituzte. Ozonoari dagokionez, epe laburreko ekintza-plan horietan Batzordearen 2004/279/EE Erabakia —2004ko martxoaren 19koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/3/EE Zuzentaru (giroko airean dagoen ozonoari buruzkoa) aplikatzeko jarraibideei buruzkoa <sup>(4)</sup>— hartu beharko da kontuan.

(20) Estatu kideek elkar kontsultatu behar dute, beste estatu kide batetik datorren kutsadura handi samar baten ondorioz, kutsatzailearen baten mailak airearen kalitateari dagozkion helburuak gaintzen baditu edo gaintzeko arriskua badago (tolerantzia-marjina gehituta, hura aplikatzekoa denean) edo, alerta-atalasea gaintzen bada, bestela. Zenbait kutsatzaile (ozonoa eta partikulak, adibidez) mugaz gaintzekoak direnez, elkarren ondoan dauden estatu kideek elkarrekin koordinatu beharko lukete, airearen kalitaterako planak, epe laburreko ekintza-planak eta jendea informatzeko planak prestatu eta gauzatzeko. Hala dagokionean, estatu kideek lankidetzan jardun behar dute beste herrialde batzuekin eta EBn sartzeko hautagaiei aukera eman behar diete hasieratik parte hartzeko.

(21) Estatu kideek eta Batzordeak airearen kalitateari buruzko informazioa bildu, trukatu eta zabaldu behar dute, eguratseko kutsaduraren ondorioak hobeto ulertu eta politika egokiak prestatzeko. Era berean, jendearen esku jarri behar da araututako kutsatzaile guztiek giroko airean duten kontzentrazioari buruzko informazio zehatza.

(22) Airearen kalitateari buruzko informazioa landu eta alderatu ahal izateko, datuak formatu estandarrean bidali behar zaizkio Batzordeari.

(23) Giroko airearen kalitateari buruzko datuak aurkeztu, ebaluatu eta jakinarazteko prozedurak egokitu egin behar dira, baliabide elektronikoak eta Internet izan daitezten informazioa zabaltzeko tresna nagusiak, eta erabilitako

---

(1) C 309 EO, 2001/11/27koa, 1. or. Azkenik Kontseiluaren 2006/105/EE Zuzentaruak aldatutako Zuzentaru.

(2) L 189 EO, 2002/07/18koa, 12. or.

(3) L 24 EO, 2008/01/29koa, 8. or.

(4) L 87 EO, 2004/03/25ekoa, 50. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

prozedurak bat etor daitezten Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007/2/EE Zuzentarauarekin —2007ko martxoaren 14koa, Europako Erkidegoan informazio espazialerako azpiegitura (Inspire) finkatzen duena <sup>(1)</sup>—.

(24) Giroko airearen kalitatea ebaluatzeko erabilitako irizpide eta teknikak zientzian eta teknikan egondako aurrerapenetara egokitzeko aukera eman behar da, bai eta zabaldu beharreko informazioa egokitzeko ere.

(25) Zuzentarau honen helburuak estatu kideek beren kasa bakarrik lortu ezin dituztenez eta, eguratseko kutsatzaileak mugaz gaindikoak izanik, helburu horiek Erkidego-mailan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak dagozkion neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Zuzentarau hau ez da helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago joango.

(26) Zuzentarau honetan agindutakoa urratuz gero aplikatu beharreko zigor-erregimena finkatu eta zigor horiek betetzen direla ziurtatu beharko dute estatu kideek. Zigor horiek eraginkorrak, neurritzkoak eta eragozleak izan behar dute.

(27) Zuzentarau honen bidez indargabetutako ekintzetako zenbait xedapenek indarrean jarraitu beharko dute 2010eko urtarrilean xedapenok ordezkatu arte eguratsean dagoen nitrogeno dioxidoaren muga-balioei eusten zaiela ziurtatzeko, aplikazio-neurri berriak hartzen diren arte airearen kalitateari buruzko datuak jasotzeko sistemai eusteko, eta 2004/107/EE Zuzentarauari jarraiki airearen kalitateari buruz egin beharreko aurreiazko ebaluazioei eusteko.

(28) Zuzentarau hau estatuetako zuzenbidean txertatzeko betebeharra aurreko zuzentarauak nabarmen aldatzea dakarten xedapenetara mugatuko da.

(29) «Legeak hobeto ematea» izenburuko erakunde arteko Hitzarmeneko <sup>(2)</sup> 34. puntuari jarraiki, estatu kide bakoitzari eskatzen zaio Zuzentarau honen eta transposizio-neurrien arteko bat-etortzea ahal den neurrian jasotzen duten koadroak finkatzeko eta argitaratzeko, euren mesederako nahiz Erkidego osoaren mesederako.

(30) Zuzentarau honek oinarritzko eskubideak errespetatzen ditu eta bereziki Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean jasotako printzipioak hartzen ditu kontuan. Zuzentarau honen bidez ingurumenaren babes-maila handi bat eta ingurumenaren kalitatea hobetzeko neurriak Erkidegoaren politiketan txertatu nahi dira, garapen iraunkorrerako printzipioarekin bat etorriz, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuneko 37. artikuluan agindutako moduan.

(31) Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiarekin —1999ko ekainaren 28koa, Batzordearen esku utzitako betearazpen-eskumenak gauzatzeko prozedurak finkatzen dituena <sup>(3)</sup>— bat etorriz hartu behar dira Zuzentarau hau betetzeko beharrezko xedapenak.

(32) I-VI., VIII-X. eta XV. eranskinak aldatzeko eskumenak eman behar zaizkio Batzordeari. Neurri horiek orokorrean bete beharrekoak direnez eta Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldarazten dituztenez, 1999/468/EE Erabakiko 5. *bis* artikuluan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

(33) Bat egiteko klausulari jarraiki, estatu kideek garaiz egin behar dituzte esposizioaren batez besteko adierazlea kalkulatzeko hiriguneetan egin beharreko kontzentrazio-neurketak, esposizioa murrizteko eta esposizioaren batez besteko adierazlea kalkulatzeko estatu-mailako helburua neurtzeko dagozkion betekizunak betetzen direla ziurtatzearen.

---

(1) C 108 EO, 2007/04/25ekoa, 1. or.

(2) L 321 EO, 2003/12/31koa, 1. or.

(3) L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or. 2000/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.) aldatutako Erabakia.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

## I. KAPITULUA

### **XEDAPEN OROKORRAK**

#### *1. artikulua*

#### **Helburua**

Zuzentarau honetan helburu hauek lortzeko neurriak finkatzen dira:

- 1) giroko airearen kalitaterako helburuak zehaztu eta finkatzea, giza osasunerako eta ingurumenerako kalteak saihestu, prebenitu eta murrizteko;
- 2) Estatu kideetako giroko airearen kalitatea ebaluatzea, metodo eta irizpide komunak erabiliz;
- 3) giroko airearen kalitateari buruzko informazioa biltzea, eguratseko kutsadurari eta bestelako kalteei aurre egiteko lagundu eta estatu-mailako eta Erkidego-mailako neurrietatik etorritako hobekuntzak eta epe luzerako eboluzioa kontrolatu ahal izateko;
- 4) giroko airearen kalitateari buruzko informazio hori herritarren esku dagoela ziurtatzea;
- 5) giroko airearen kalitateari eustea, hura ona denean, eta hobetzea, gainerako kasuetan;
- 6) Estatu kideen arteko lankidetzaren areagotzea, eguratseko kutsadura murrizteko.

#### *2. artikulua*

#### **Definizioak**

Zuzentarau honen ondorioetarako, definizio hauek erabiliko dira:

- 1) «giroko airea»: troposferaren kanpoaldeko airea, jende arruntak normalean sartzerik ez duen eta 89/654/EEE Zuzentarauan <sup>(1)</sup> zehaztutako lanlekuak izan ezik, laneko osasun eta segurtasunari buruzko xedapenak aplikatzen direnean han;
- 2) «kutsatzailea»: giroko airean egonik, giza osasuna nahiz ingurumena orokorrean kaltetu dezakeen edozein substantzia;
- 3) «maila»: kutsatzaile batek giroko airean duen kontzentrazioa edo gainazal batean duen metaketa, une jakin batean;
- 4) «ebaluazioa»: mailak neurtu, kalkulatu, iragarri nahiz zenbatesteko erabilitako edozein metodo;
- 5) «muga-balioa»: ezaguera zientifikoei jarraiki finkatutako maila, giza osasunerako nahiz ingurumenerako kalteak saihestu, prebenitu eta murriztearren, epe jakin batean lortu beharrekoa eta lortutakoan gaintu ezinekoa;

---

(1) Kontseiluaren 89/654/EEE Zuzentaraua, 1989ko azaroaren 30ekoa, lanlekuetako osasun eta segurtasuneko gutxieneko xedapenei buruzkoa (L 393 EO, 1989/12/30ekoa, 1. or.). Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007/30/EE Erregelamendua (L 165 EO, 2007/06/27koa, 21. or.) aldatutako Erregelamendua.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- 6) «maila kritikoa»: ezaguera zientifikoei jarraiki finkatutako maila, horren gainetik landare, zuhaitz eta natur ekosistementzako (baina gizakiontzat ez) kalteak gerta baldin badaitezke;
- 7) «tolerantzia-marjina»: Zuzentarau honetan finkatutako baldintzetan muga-balioa gainditu daitekeeneko ehuneko;
- 8) «airearen kalitaterako planak»: muga-balioak nahiz xede-balioak lortzeko neurriak jasotzen dituzten planak;
- 9) «xede-balioa»: giza osasunerako nahiz ingurumenerako kalteak saihestu, prebenitu eta murriztearren finkatutako balioa, ahal dela, epe jakin batean lortu beharrekoa;
- 10) «alerta-atalasea»: herritarrei oro har eragiten dien eta giza osasunerako arriskua dakarren iraupen txikiko gutxieneko esposizioa. Maila horretatik aurrera, estatu kideek neurriak hartu behar dituzte berehala;
- 11) «informazio-atalasea»: biztanleriako sektore bereziki kalteberen osasunerako arriskua dakarren iraupen txikiko gutxieneko esposizioa. Maila horretatik aurrera, informazio egokia eman beharra dago berehala;
- 12) «goiko ebaluazio-atalasea»: maila horren azpitik neurketa finkoak, modelizazio-teknikak eta neurketa adierazgarriak erabil daitezke giroko airearen kalitatea ebaluatzeko;
- 13) «goiko ebaluazio-atalasea»: maila horren azpitik, aski da modelizazio-teknikak edo estimazio objektiboak erabiltzea, giroko airearen kalitatea ebaluatzeko;
- 14) «epe luzearako helburua»: epe luzean lortu beharreko maila, giza osasuna eta ingurumena behar bezala babesteko helburuz emandako neurriekin hori lortzerik ez dagoenean izan ezik;
- 15) «jatorri naturaleko isurpenak»: zuzenean nahiz zeharka giza jarduerak eragin ez dituzten agente kutsatzaileen isurketak. Isurketa horiek naturako fenomeno hauek eragindakoak izan daitezke: sumendien erupzioak, lurrikarak, jarduera geotermikoak, baso nahiz oihanetako suteak, haizete handiak, itsasoko aerosolak, eguratsoko berreskidurak edota lurralde idorretatik ekarritako partikula naturalak.
- 16) «zona»: estatu kide batek airearen kalitatea ebaluatu eta kudeatzeko bere lurraldean zedarritutako eremua;
- 17) «aglomerazioa»: 250.000 biztanletik gorako biztanle-konurbazioa edo, 250.000 biztanle edo gutxiago izanez gero, estatu kideek finkatutako biztanle-dentsitatea duena km<sup>2</sup>-ko;
- 18) «PM<sub>10</sub>»: EN 12341 arauko PM<sub>10</sub> partikulen laginketa eta neurketarako erreferentziako metodoan finkatutako tamaina hautakorreko burutik pasatzen diren partikulak, diametro aerodinamikoa 10 µm eta ebaketa-efizientzia % 50 izanik;
- 19) «PM<sub>2,5</sub>»: EN 14907 arauko PM<sub>2,5</sub> partikulen laginketa eta neurketarako erreferentziako metodoan finkatutako tamaina hautakorreko burutik pasatzen diren partikulak, diametro aerodinamikoa 2,5 µm eta ebaketa-efizientzia % 50 izanik;
- 20) «esposizioaren batez besteko adierazlea»: estatu kide bateko lurralde osoko hiri-ingurune sakoneko kokapena duten lekuetan egindako neurketen arabera finkatutako batez besteko maila, biztanleen esposizioa adierazten duena. Esposizioa murrizteko estatu-mailako helburua eta esposizioaren kontzentrazioari dagozkion betebeharrak finkatzeko erabiltzen da;
- 21) «esposizioaren kontzentrazioari dagokion betebeharra»: esposizioaren batez besteko adierazlea oinarritat hartuta, giza osasunerako kalteak murriztearren finkatutako maila, epe jakin batean lortu beharrekoa;



*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

22) «esposizioa murrizteko helburu nazionala»: giza osasunerako nahiz ingurumenerako kalteak murriztearren, estatu kide bateko biztanleen batez besteko esposizioaren adierazlea murrizteko finkatutako ehunekoak, ahal dela, epe jakin batean lortu beharrekoak;

23) «hiri-ingurune koakopena duten lekuak»: hiri-inguruneetan kokatuta egonik, hirietako biztanleen esposizio orokorraren adierazleak diren mailak;

24) «nitrogeno oxidoak»: nitrogeno monoxido (oxido nitrikoa) eta nitrogeno dioxido bolumen batean mila milioiko dauden zatien batura, nitrogeno dioxidoaren kontzentrazio masikoaren unitatean ( $\mu\text{g}/\text{m}^3$ ) adierazia;

25) «neurketa finkoak»: datuen kalitaterako helburuekin bat datozen mailak finkatzearen, kokapen finkoetan, modu jarraituan nahiz ausazko laginketen bidez egindako neurketak;

26) «neurketa adierazgarriak»: neurketa finkoek bete beharreko kalitate-helburuak bezain zorrotzak ez diren helburuak bete behar dituzten neurketak;

27) «konposatu organiko hegazkorak» (KOH): eguzki-argiaren eraginpean nitrogeno oxidoekiko erreazioaren ondorioz oxidatzaile fotokimikoak sortzeko gai diren jatorri antropogeniko eta biogenikoetako konposatu organikoak (metanoa izan ezik);

28) «ozonoaren substantzia aitzindariak»: atmosfera baxuan ozonoa sortzea eragiten duten substantziak. Horietako batzuk X. eranskinean zehazten dira.

### *3. artikulua*

#### **Erantzukizunak**

Estatu kideek dagozkien agintari eta organismoak izendatuko dituzte, jarraian zehazten diren zereginen arduratzeko:

- a) giroko airearen kalitatea ebaluatzea;
- b) neurketa-sistemak (metodoak, ekipoak, sareak eta laborategiak) onartzea;
- c) neurketen doitasuna bermatzea;
- d) ebaluazio-metodoak aztertzea;
- e) Batzordeak kalitatea bermatzeko Erkidego-mailako programak antolatzen dituenean, estatu bakoitzak bere lurraldeko jarduerak koordinatzea;
- f) gainerako estatu kideekin eta Batzordearekin elkarlanean jardutea. Hala dagokionean, I. eranskineko C atalean agindutakoarekin bat etorri beharko dute eskumeneko agintari eta organismoek.

### *4. artikulua*

#### **Zonak eta aglomerazioak izendatzea**

Estatu kideek zona eta aglomerazioak izendatuko dituzte beren lurralde osoan. Zona eta aglomerazio horietan airearen kalitatea ebaluatu eta kudeatzeko jarduerak egin beharko dira.

## II. KAPITULUA

### **GIROKO AIREAREN KALITATEA EBALUATZEA**

#### *1. ATALA*

2008/50/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 152/1, 2008/6/11koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

***Giroko airearen kalitatearen ebaluazioa, sulfre dioxidoa, nitrogeno dioxidoa eta nitrogeno oxidoak, partikulak, beruna, bentzenoa eta karbono monoxidoa kontuan hartuta***

#### *5. artikulua*

##### **Ebaluazio-sistemak**

1. II. eranskineko A atalean zehaztutako goiko eta beheko ebaluazio-atalaseak aplikatuko zaizkie sulfre dioxidoari, nitrogeno dioxidoari eta nitrogeno oxidoari, partikulei (PM<sub>10</sub> eta PM<sub>2,5</sub>), berunari, bentzenoari eta karbono monoxidoari. Zona eta aglomerazio bakoitza ebaluazio-atalase horien arabera sailkatuko da.

2. 1. paragrafoan aipatutako sailkapena bost urtetik behin berrikusiko da gutxienez, II. eranskineko B atalean finkatutako prozedura erabiliz. Dena den, sulfre dioxidoaren, nitrogeno dioxidoaren eta, hala dagokionean, nitrogeno oxidoen, partikulen (PM<sub>10</sub> eta PM<sub>2,5</sub>), berunaren, bentzenoaren eta karbono monoxidoaren giroko kontzentrazioan eragina duten jardueretan aldaketa handiak gertatuz gero, sailkapenak maizago berrikusiko dira.

#### *6. artikulua*

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Estatu kideek 5. artikuluan adierazitako kutsatzaileak kontuan hartuta ebaluatuko dute airearen kalitatea beren zona eta aglomerazioetan, artikuluko honetako 2., 3. eta 4. paragrafoetan finkatutako irizpideekin eta III. eranskinean finkatutako irizpideekin bat etorritik.

2. 1. paragrafoan aipatutako kutsatzaileen mailak kutsatzaile horietarako finkatutako goiko ebaluazio-atalasea gainditzen duten zona eta aglomerazioetan, neurketa finkoen bidez ebaluatuko da giroko airearen kalitatea. Neurketa finko horiek modelizazio-teknikekin eta neurketa adierazgarriekin osatu ahal izango dira, giroko airearen kalitatea espazioan nola banatuta dagoen jakiteko.

3. 1. paragrafoan aipatutako kutsatzaileen maila kutsatzaile horietarako finkatutako beheko ebaluazio-atalasearen azpitik dagoen zona eta aglomerazioetan, neurketa finkoak, modelizazio-teknikak eta neurketa adierazgarriak erabiliz ebaluatu ahal izango da giroko airearen kalitatea.

4. 1. paragrafoan aipatutako kutsatzaileen maila kutsatzaile horietarako finkatutako beheko ebaluazio-atalasearen azpitik dagoen zona eta aglomerazioetan, giroko airearen kalitatea ebaluatzeko aski izango da modelizazio-teknikak edo kalkulu objektiboak egiteko teknikak, nahiz biak, erabiltzea.

5. 2., 3. eta 4. paragrafoetan adierazitako ebaluazioez gain, eguratseko kutsadura-iturri handietatik urruti dauden landa-ingurunean sakoneko kokapena duten lekuetan ere neurketak egingo dira, kontzentrazio masikoari eta partikula finen (PM<sub>2,5</sub>) kontzentrazioen espeziario kimikoari buruzko informazioa eskuratzeko, gutxienez. Datu horiek urteko batez bestekoetan emango dira, eta irizpide hauek erabiliko dira neurketak egiteko:

a) laginketa-gune bat jarriko da 100.000 km<sup>2</sup>-ko;

b) Estatu kide bakoitzak neurketa-estazio bat jarriko du gutxienez, edo mugakide dituen estatuekin estazio bat edo gehiago jartzea adostu dezake ebaluatu beharreko elkarren ondoko esparruetan, espazioaren bereizmen egokia lortzeko;

c) hala dagokionean, zaintza-jarduerak Europako eguratseko kutsatzaileen distantzia handiko garraioaren etengabeke zaintza eta ebaluaziorako lankidetzaprograman (EMEP) finkatutako zaintza iraunkorrerako eta neurketarako estrategiarekin koordinatu beharko dira;

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

d) I. eranskineko A eta C atalak aplikatuko dira partikulen kontzentrazio masikoaren neurketarako datuen kalitateari dagozkion helburuak betetzeko eta IV. eranskina oso-osorik aplikatuko da.

Estatu kideek Batzordeari jakinarazi beharko diote zein neurketa-metodo erabiltzen duten partikula finen (PM<sub>2,5</sub>) osaera kimikoa zehazteko.

#### *7. artikulua*

##### **Laginketa-guneak**

1. III. eranskinean finkatutako irizpideen arabera erabakiko da giroko airean dagoen sufre dioxidoa, nitrogenu dioxidoa eta nitrogenu oxidoak, partikulak (PM<sub>10</sub> eta PM<sub>2,5</sub>), beruna, bentzenoa eta karbono monoxidoa neurtzeko laginketa-guneak kokatzeko lekua.

2. Airearen kalitatea ebaluatzeko informazio-iturri bakarra neurketa finkoak diren zona eta aglomerazioetan, kutsatzaile bakoitzeko laginketa-guneen kopuruak ezin izango du V. eranskineko A atalean adierazitako laginketa-guneen gutxieneko kopurua baino txikiagoa izan.

3. Neurketa finkoak egiteko laginketa-guneetatik jasotako informazioa modelizazio-tekniken nahiz neurketa adierazgarrien bidez lortutako informazioarekin osatzen den zona eta aglomerazioetan, V. eranskineko A atalean zehaztutako laginketa-guneen gutxieneko kopurua % 50era arte murriztu ahal izango da, baldintza hauek betez gero:

a) metodo osagarriek airearen kalitatea ebaluatzeko behar besteko informazioa ematea muga-balioei eta alerta-atalaseei dagokienez, eta jendearentzako informazio egokia ematea, halaber;

b) jarritako laginketa-guneen kopurua eta beste teknika batzuen bereizmen espaziala dagokion kutsatzailearen kontzentrazioa zehazteko behar adinakoa izatea, I. eranskineko A atalean adierazitako datuen kalitate-helburuekin bat etorriz, eta ebaluazioaren emaitzak I. eranskineko B atalean zehaztutako irizpideekin bat etortzeko modukoak izatea.

Modelizazioaren nahiz neurketa adierazgarriaren emaitzak erabiliko dira airearen kalitatea muga-balioen arabera ebaluatzeko.

4. Estatu kideek laginketa-guneak aukeratzeko irizpideak aplikatzen dituztela egiaztatuko du Batzordeak, Europar Batasun osoan irizpide horiek modu bateratuan aplikatzen direla ziurtatzearen.

#### *8. artikulua*

##### **Erreferentziako neurketa-metodoak**

1. Estatu kideek VI. eranskineko A atalean eta C atalean zehaztutako erreferentziako neurketa-metodoak eta irizpideak aplikatuko dituzte.

2. Beste neurketa-metodo batzuk ere erabili ahal izango dira, VI. eranskineko B atalean zehaztutako baldintzetan.

#### *2. ATALA*

##### ***Giroko airearen kalitatea ebaluatzea, ozonoari dagokionez***

#### *9. artikulua*

##### **Ebaluazio-irizpideak**

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Zona edo aglomerazio batean ozonoaren kontzentrazioak VII. eranskinen C atalean zehaztutako epe luzerako helburuak gainditu baditu aurreko bost urteetako edozeinetan egindako neurketetan, neurketa finkoak egin beharko dira.
2. Eskura ditugun datuak bost urtetik beherako aldi bati buruzkoak badira, bost urte horietan 1. paragrafoan adierazitako epe luzerako helburuak gainditu diren ikusteko, isurpen-inbentarioen eta modelizazioaren bidez lortutako emaitzekin elkartu ahal izango dira ozono-maila seguruenera behar baino handiagoa izango den aldi eta lekuei buruzko epe laburreko neurketa-kanpainetako emaitzak.

#### *10. artikulua*

#### **Laginketa-guneak**

1. Ozonoa neurtzeko laginketa-guneak VIII. eranskinen finkatutako irizpideen arabera zehaztuko dira.
2. Airearen kalitatea ebaluatzeko informazio-iturri bakarra neurketak diren zona eta aglomerazioetan, ozonoaren neurketa finkoak egiteko laginketa-guneen kopuruak ezin izango du IX. eranskinen A atalean adierazitako gutxieneko laginketa-guneen kopuruak baino txikiagoa izan.
3. Neurketa finkoak egiteko laginketa-guneetatik jasotako informazioa modelizazio-tekniken nahiz neurketa adierazgarrien bidez lortutako informazioarekin osatzen den zona eta aglomerazioetan, IX. eranskinen A atalean zehaztutako laginketa-guneen kopurua murriztea egongo da, baldintza hauek betez gero:
  - a) metodo osagarriek airearen kalitatea ebaluatzeko behar besteko informazioa ematea xede-balioei, epe luzerako helburuei eta informazio- eta alerta-atalaseei dagokienez;
  - b) jarritako laginketa-guneen kopurua eta beste teknika batzuen bereizmen espaziala ozonoaren kontzentrazioa zehazteko behar adinakoa izatea, I. eranskinen A atalean adierazitako datuen kalitate-helburuekin bat etorritik, eta ebaluazioaren emaitzak I. eranskinen B atalean zehaztutako irizpideekin bat etortzeko modukoak izatea;
  - c) zona eta aglomerazio bakoitzeko laginketa-guneen kopurua bi milioi biztanleko bat eta 50.000 km<sup>2</sup>-ko bat izatea gutxienez. Bigarrenarekin laginketa-guneen kopurua handiagoa izanez gero, irizpide hori erabiliko da. Zona eta aglomerazio bakoitzeko laginketa-gune bat jarri beharko da gutxienez;
  - d) gainerako laginketa-gune guztietan nitrogeno dioxidoa neurtzea, VIII. eranskinen A atalean aipatzen diren landa-inguruneen hondoko estazioetan izan ezik.

Modelizazioaren nahiz neurketa adierazgarrien emaitzak erabiliko dira airearen kalitatea xede-balioei dagokienez ebaluatzeko.

4. Nitrogeno dioxidoa IX. eranskinen A atalaren arabera ozonoa neurtzeko jarri beharreko laginketa-guneen erdietan neurtuko da gutxienez. Neurketa hori modu jarraituan egin beharko da, VIII. eranskinen A atalean aipatutako landa-inguruneen hondoko estazioetan izan ezik, han neurketak egiteko beste metodo batzuk erabil daitezke eta.
5. Aurreko bost neurketa-urteetako bakoitzean kontzentrazioak epe luzerako helburuen azpitik egon diren zona eta aglomerazioetan, neurketa finkoak egiteko laginketa-guneen kopurua IX. eranskinen B atalarekin bat etorritik finkatuko da.
6. X. eranskinen adierazitako ozonoaren substantzia aitzindarien kontzentrazioari buruzko datuak ematen dituen laginketa-gune bat instalatu eta martxan jartzen dela ziurtatu beharko du estatu kide bakoitzak, bere lurraldeari dagokionez. Estatu kide bakoitzak erabakiko du ozonoaren substantzia aitzindariak neurtzeko zenbat estazio jarriko dituen eta non, X. eranskinen finkatutako helburuak eta metodoak kontuan hartuta.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

#### *11. artikulua*

### **Erreferentziako neurketa-metodoak**

1. VI. eranskineko A ataleko 8. puntuan finkatutako erreferentziako metodoa erabiliko dute estatu kideek ozonoa neurtzeko. Neurketak egiteko beste metodo batzuk ere erabili ahal izango dira, VI. eranskineko B atalean finkatutako baldintzak betez gero.
2. KOH neurtzeko eta laginketa egiteko X. eranskinean zehaztutakoetatik zein metodo aukeratu duten jakinarazi beharko diote estatu kideek Batzordeari.

#### III. KAPITULUA

### **GIROKO AIREAREN KALITATEA KUDEATZEA**

#### *12. artikulua*

### **Mailak muga-balioen azpitik daudenean aplikatu beharreko irizpideak**

Giroko airean dagoen sufre dioxidoaren, nitrogeno dioxidoaren, PM<sub>10</sub> eta PM<sub>2,5</sub> partikulen, berunaren, bentzenoaren eta karbono monoxidoaren mailak XI. eta XIV. eranskinetan bakoitzarentzat finkatutako muga-balioen azpitik dauden zona eta aglomerazioetan, kutsatzaile horien mailak muga-balioen azpitik utziko dituzte estatu kideek, eta garapen iraunkorarekin bateragarria den giroko airearen kalitate onenari eusten saiatuko dira.

#### *13. artikulua*

### **Giza osasuna babesteko muga-balioak eta alerta-atalaseak**

1. Giroko airean dagoen sufre dioxidoaren, PM<sub>10</sub> partikularen, berunaren eta karbono monoxidoaren mailak XI. eranskinean finkatutako muga-balioak ez dituztela gainditzen ziurtatu beharko dute estatu kideek.
- XI. eranskinean nitrogeno dioxidorako eta bentzenorako finkatutako muga-balioak ezin izango dira gainditu eranskin horretan zehaztutako datatik aurrera.
- Baldintza horiek betetzen diren egiaztatuko da, III. eranskinean agindutakoari jarraiki.
- XI. eranskinean finkatutako tolerantzia-marjinak 22. artikuluko 3. paragrafoan eta 23. artikuluko 1. paragrafoan agindutako moduan aplikatuko dira.
2. Giroko airean dagoen sufre dioxidoaren eta nitrogeno dioxidoaren kontzentrazioetarako alerta-atalaseak XII. eranskineko A atalean finkatutakoak izango dira.

#### *14. artikulua*

### **Maila kritikoak**

1. Estatu kideek ziurtatuko dute XIII. eranskinean zehaztutako maila kritikoak betetzen direla eta III. eranskineko A atalarekin bat etorritik ebaluatzen direla.
2. Neurketa finkoak badira airearen kalitatea ebaluatzeko informazio-iturri bakarra, laginketa-guneen kopurua ez da V. eranskineko C atalean zehaztutako gutxieneko kopurua baino txikiagoa izango. Informazio hori neurketa adierazgarrietatik nahiz modelizazioetatik ateratako informazioarekin osatzen bada, laginketa-guneen gutxieneko kopurua erdira murriztu ahal izango da, dagokion kutsatzailearen kontzentrazioa I. eranskineko A atalean adierazitako datuen kalitate-helburuekin bat etorritik finkatzerik badago.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

#### *15. artikulua*

### **Giza osasuna babesteko, PM<sub>2,5</sub> partikulekiko esposizioa murrizteko helburu nazionala**

1. PM<sub>2,5</sub>-ekiko esposizioa murrizteko gastu izugarriak eragiten ez duten neurri guztiak hartu behar dituzte estatu kideek, XIV. eranskineko B atalean esposizioa murrizteko finkatutako helburu nazionala lortzearren eranskinean ezarritako urtean beranduenez.
2. XIV. eranskineko A atalarekin bat etorritik, estatu kideek ziurtatu beharko dute 2015erako finkatutako esposizioaren batez besteko adierazleak ez duela gainditzen eranskin horretako C atalean esposizioentzat finkatutako kontzentrazioa.
3. PM<sub>2,5</sub> partikulekiko esposizioaren batez besteko adierazlea XIV. eranskineko A atalean finkatutako moduan ebaluatuko da.
4. III. eranskinarekin bat etorritik, estatu kideek ziurtatu beharko dute PM<sub>2,5</sub> partikulekiko esposizioaren batez besteko adierazlea neurtzeko oinarritzat erabiltzen diren laginketa-guneen banaketak eta kopuruak behar bezala jasotzen duela herritarren esposizio orokorra. Laginketa-guneen kopuruak ezin izango du V. eranskineko B atala aplikatuz finkatutakoa baino txikiagoa izan.

#### *16. artikulua*

### **PM<sub>2,5</sub> partikulen xede-balioa eta muga-balioa, giza osasuna babesteko**

1. Giroko airean dagoen PM<sub>2,5</sub>-en kontzentrazioak XIV. eranskineko D atalean finkatutako xede-helburua ez duela gainditzen ziurtatzeko gastu izugarriak eragiten ez duten neurri guztiak hartu behar dituzte estatu kideek, eranskin horretan ezarritako datatik aurrera.
2. Estatu kideek ziurtatu beharko dute giroko airean dagoen PM<sub>2,5</sub>-en kontzentrazioak XIV. eranskineko E atalean finkatutako muga-balioa inongo zona eta aglomerazioetan ez duela gainditzen, eranskinean ezarritako datatik aurrera. Baldintza hori betetzen den egiaztatuko da, III. eranskinean agindutakoari jarraiki.
3. 23. artikuluko 1. paragrafoan agindutako moduan aplikatuko da XIV. eranskineko E atalean finkatutako tolerantzia-marjina.

#### *17. artikulua*

### **Ozono-kontzentrazioak xede-balioak eta epe luzerako helburuak gainditzen dituen zona eta aglomerazioetan aplikatu beharreko baldintzak**

1. Xede-balioak eta epe luzerako helburuak betetzen direla ziurtatzeko gastu izugarriak eragiten ez duten neurri guztiak hartu behar dituzte estatu kideek.
2. Xede-balioren bat gainditzen duten zona eta aglomerazioetan, 2001/81/EE Zuzentarauko 6. artikuluari jarraiki prestatutako programa aplikatzen dela ziurtatu beharko dute estatu kideek, eta, hala badagokio, giroko airearen kalitaterako plan bat aplikatuko dute xede-balioak betearazteko, non eta hori ezinezkoa ez den gastu izugarriak eragin gabe. Guztia ere Zuzentaru honetako VII. eranskineko B atalean zehaztutako datatik aurrera egin beharko da.
3. Giroko airean dagoen ozono-maila epe luzerako helburuak baino handiagoa baina xede-balioren berdina edo txikiagoa den zona eta aglomerazioetan, epe luzerako helburuak lortzeko neurri ekonomikoki eraginkorrak prestatu eta aplikatuko dituzte estatu kideek. Neurri horiek bat etorri beharko dute airearen kalitaterako plan guztiekin eta 2. paragrafoan aipatutako programarekin, gutxienez.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

*18. artikulua*

**Ozono-kontzentrazioak epe luzerako helburuak betetzen dituen zona eta aglomerazioetan aplikatu beharreko baldintzak**

Giroko airean dagoen ozono-mailak epe luzerako helburuak betetzen dituen zona eta aglomerazioetan, estatu kideek saiatu behar dute maila hori epe luzerako helburuen azpitik mantentzen eta ingurumena eta giza osasuna ganoraz babestearekin eta garapen iraunkorrarekin bateragarria den giroko airearen ahalik eta kalitate onena lortzen, ozonoak eragindako kutsaduraren mugaz gaindiko izaerak eta eguraldiak aukera ematen duten neurrian.

*19. artikulua*

**Informazio- nahiz alerta-atalasea gaindituz gero hartu beharreko neurriak**

XII. eranskinean finkatutako informazio-atalasea edo eranskin berean finkatutako beste edozein atalase gainditzean, jendeari irratiz, telebistaz, egunkariz nahiz Internetez horren berri emateko behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte estatu kideek.

Era berean, erregistratutako mailei buruzko eta alerta- nahiz informazio-atalaseak gainditu diren aldien iraupenari buruzko xehetasunak eman beharko dizkiote estatuek Batzordeari, behin-behineko izaeraz.

*20. artikulua*

**Jatorri naturaleko isurpenak**

1. Kutsatzaile baten muga-balioak iturri naturalen ondorioz gainditzen diren zona eta aglomerazioen urte jakin bateko zerrendak bidali beharko dizkiote estatu kideek Batzordeari. Gainditze horiek iturri naturalei egoztekoak direla erakusten duten frogak eta kontzentrazioei eta iturriei buruzko informazioa aurkeztu beharko dituzte estatu kideek.

2. 1. paragrafoarekin bat etorritik iturri naturalari egoztekoa den gainditze baten berri ematen zaionean Batzordeari, gainditze hori ez da halakotzat hartuko Zuzentarau honetan agindutakoaren ondorioetarako.

3. Iturri naturalei egoztekoak diren gainditzeak frogatu eta dagozkion kenketak egiteko jarraibideak argitaratuko ditu Batzordeak, 2010eko ekainaren 11 baino lehen.

*21. artikulua*

**Neguan errepideetan gatza nahiz hondarra erabiltzearen ondoriozko gainditzeak**

1. Neguan errepideetan gatza nahiz hondarra erabiltzeak eragindako partikulen berreskiduraren ondorioz giroko airean PM<sub>10</sub> partikulen muga-balioak gainditzen direneko zona eta aglomerazioak zehaztu ahal izango dituzte estatu kideek.

2. Zona eta aglomerazio horien zerrenda Batzordeari bidali beharko diete estatu kideek, PM<sub>10</sub> partikulen iturri eta kontzentrazioei buruzko informazioarekin batera.

3. 27. artikuluekin bat etorritik, Batzordeari xehetasunon berri ematen diotenean, estatu kideek frogak aurkeztu beharko dituzte gainditzeak berreskiduran dauden partikulen ondorioz gertatu direla eta kontzentrazio horiek murrizteko neurri egokiak hartu direla erakusteko.

4. 20. artikuluan agindutakoa gorabehera, artikulua honetako 1. paragrafoan aipatzen diren zona eta aglomerazioen kasuan, 23. artikuluan aurreikusitako airearen kalitaterako plana prestatu beharko dute estatu kideek, non eta gainditzeak neguan errepideetan erabilitako gatzaren eta hondarraren ondorioz gertatu ez diren.

2008/50/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 152/1, 2008/6/11koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

5. Neguan errepideetan gatza nahiz hondarra erabiltzeak eragindako partikulen berreskiduraren ondoriozko isurpenak zehazteko jarraibide batzuk argitaratuko ditu Batzordeak, 2010eko ekainaren 11 baino lehen.

#### *22. artikulua*

### **Betetzeko epeak luzatzea eta muga-balio batzuk aplikatzeko beharra ezabatzea**

1. Zona edo aglomerazio jakin batean, nitrogeno dioxidoaren edo bentzenoaren muga-balioak XI. eranskinean finkatutako epeetan betetzerik ez badago, estatu kideak bost urtera arte luzatu ahal izango ditu epe horiek zona edo aglomerazio zehatz baterako, 23. artikuluari jarraiki luzapena izango duen zona edo aglomeraziorako airearen kalitaterako plan bat onartuz gero. Plan horrekin batera XV. eranskineko B atalean adierazitako informazioa aurkeztu beharko da dagokion kutsatzaileari buruz, eta luzapena amaitu aurretik muga-balioak beteko direla frogatu beharko da.

2. Zona edo aglomerazio batean, XI. eranskinean PM<sub>10</sub> partikuletarako finkatutako muga-balioak betetzerik ez badago, lekuotako berezko barreiaduraren, eguraldiaren nahiz mugaz gaindiko isurpenen ondorioz, estatu kideak muga-balio horiek ez ditu 2011ko ekainaren 11ra arte bete beharko, 1. paragrafoan jasotako baldintzak bete eta, epeak betetze aldera, estatu-, eskualde- nahiz herri-mailan dagozkion neurri guztiak hartu dituela frogatuz gero.

3. Estatu kide batek 1. edo 2. paragrafoetan zehaztutakoa aplikatzean, kutsatzaile bakoitzak muga-balioa gainditzen duenean, XI. eranskinean kutsatzaile bakoitzarentzat finkatutako gehienezko tolerantzia-marjina ez dela gainditzen ziurtatu beharko du.

